

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Oiongo hirigunea osorik birgaitzeko plan bereziaren bertsio eguneratu eta osoa idazteko onespena**

Bo181108B. Oiongo Udalak onespena eman du Oiongo hirigunea osorik birgaitzeko plan bereziaren bertsio eguneratu eta osoa idazteko, Lurzoruaren eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 107.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Bertsio horrek planak izan dituen aldaketa puntualak eta kartografia eguneratua jasotzen ditu.

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako bi hilabeteko epea egongo da iragarki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio auzietarako jurisdikzioaren Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Dena den, horren aurretik eta nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz. Hala ere, egoki iritziz gero, beste edozein egintza edo errekurtsu abiarazi ahal izango da eskubideak aldezteko.

Oion, 2018ko azaroaren 15a

*Alkatea*

*EDUARDO TERROBA CABEZON*